

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

KIROLAREN, OSASUNAREN ETA GARAPENERAKO LANKIDETZAREN SAILA

Garapenerako Lankidetzaren Zerbitzua

Herritartasun globalerako sentsibilizazio-proiektuetarako 2024ko deialdiaren ebazpena

Iragarki honen bidez, Tokiko Gobernu Batzarrak 2024ko urriaren 11n egindako ohiko bilkuran onartutako "2024ko herritartasun globalerako sentsibilizazioa" proiektuetarako dirulaguntzen deialdiaren ebazpena jakinarazten zaie interesdunei.

Guztira 130.000,00 euro bideratuko dira deialdira, udal aurrekontuko 2450 2391 4 8200 partidaren kontura ("Lankidetzarako dirulaguntzak").

2024ko uztailaren 1ean bukatu zen eskabideak aurkezteko epea. Orotara 11 proposamen aurkeztu ziren garaiz eta behar bezala.

Garapen Lankidetzarako Zerbitzuak berrikusi eta ebaluatu zituen deialdira aurkeztutako 11 proposamenak, eta 2024ko irailaren 19an egin zuen ebazpen-proposamena barne hartzen duen txosten teknikoa.

Txosten horren haritik, eta Kirolaren, Osasunaren eta Garapenerako Lankidetzaren Saileko zinegotzi ordezkariak proposatuta, hauxe erabaki zuen Tokiko Gobernu Batzarrak 2024ko urriaren 11n egindako bilkuran:

ERABAKIA

Lehena. Herritartasun globalerako sentsibilizazio-proiektuetarako 2024ko dirulaguntza-deialdiaren barruan honako entitate eskatzaile hauei dirulaguntzak ematea, erantsitako taulan zehaztutako zenbatekoekin:

ENTITATEA	IFZ	ZENBATEKOA
Alboan Fundazioa	G48811376	21.376,05 €
Manuel Iradier elkarte afrikanista	G01053784	25.000,00 €
Unión y Apoyo del hablante pular - Haaly Pular	G01513308	18.436,70 €
Nazioarteko Elkartasuna	G48301428	22.341,97 €
Munduko Medikak	G79408852	6.520,00 €
Afrika Miniaturan	G01583640	19.366,33 €
Kolonbia-Euskadi elkarte	G01373943	7.000,00 €
Mugarik Gabe	G48263446	6.966,70 €
		127.007,75 €

Bigarrena. Dirulaguntza ukatzea honako entitate hauei, erantsitako taulan adierazitako arrazoiengatik —ebazpenaren xedapen-zatian eta balorazio-fitxa teknikoetan garatze dira arrazoi horiek:

ERAKUNDE ESKATZAILEA	PROIEKTUAREN IZENA	ARRAZOIA
Prestaturik atzerritar profesionalen elkartea	Juntxs por la dignidad	Gutxieneko puntuazioa ez lortzea
Mundubat fundazioa	Defendiendo y sensibilizando sobre la importancia del activismo social, político y ambiental de las mujeres de Colombia en V-G	Gutxieneko puntuazioa ez lortzea
Medicus Mundi	Guhanga Ibishya Birambye: conectando mujeres luchadoras	Oinarri arautzaileen 6.5.a artikulua: "Ez dira diruz lagunduko bidezko merkataritzarekin eta kontsumo arduratsuekin lotutako ekintzak"

Hirugarrena. Aipatutako dirulaguntzak Dirulaguntzen Datu Base Nacionalean argitaratzeko agintzea, hala agintzen baitu Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 20. artikulua, bertan datu hauek adierazita: onuradunak, emandako dirulaguntzaren zenbatekoa eta Vitoria-Gasteizko Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorrak 13. artikuluan eskatutako gainerako informazioa. ALHAOn, Vitoria-Gasteizko Udalaren egoitza elektronikoa eta udal webgunean (www.vitoria-gasteiz.org) ere argitaratu beharko dira.

Erabaki honen kontra errekurtso hauek aurkez daitezke:

— Berraztertze errekurtsoa, hilabeteko epean — jakinarazte-egunaren biharamunetik kontatuta —, hartu duen organo berari zuzendua, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 123. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren ildotik. Errekurtso horren berriazko nahiz ustezko ebazpenaren kontra, berriz, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahalko da, Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, errekurtso ezesten duen ebazpenaren berri jasotzen den egunaren biharamunetik aurrera, edo, ebazpena ustezkoa bada, sei hilabeteko epean, ustezko ebazpen hori gertatzen den egunaren biharamunetik.

— Zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jasotzen den egunaren biharamunetik.

— Dena den, interesdunek egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez dezakete, nahi badute, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 40.2 artikuluan aurreikusitakoaren ildotik.

Vitoria-Gasteizen, 2024ko urriaren 24an

Garapen Lankidetzarako Zerbitzuko administrazio orokorreko teknikaria
MERTXE BAREA DURÁN